# Hondakinak biltzeko zerbitzua Seguran

SASIETA MANKOMUNITATEA

SEGURAKO UDALA

- **Seguran** hondakinak **sailkatuta** biltzen dira, **atez ate** edota **edukiontzi** bidez.
- Etxebizitza bakoitzak **ontzi multzo** bat du hondakinak behar bezala bereizteko. **Ontziak doan eskuratu daitezke udaletxean**.

**Atez ateko egutegia**

| IGANDEA | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA |
|---|---|---|---|---|
|  |  |  |  |  |
| ontzi arinak | organikoa | papera eta kartoia | ontzi arinak | organikoa / errefusa |

**Hondakinak bereizi, dagokien ontzian sartu** eta kalera atera egutegia errespetatuz **20:00ak eta 6:00ak bitartean**. Ontzia **hurrengo egunean jaso** eta etxera eraman. **POLTSETAN EZIN DA EZER ATERA**, pixoihalak izan ezik.

- **PIXOIHALAK:** bi aukera daude pixoihalak ateratzeko.

  **1- Atez ate:** plastikozko poltsa itxi batean atera daitezke, eta ontziarekin batera zintzilikatu, **igandetik ostegunera**.

  **2- Edukiontzia:** **egunero** bota daitezke. Edukiontzia txartel bidez irekitzen da. **Eska ezazu udaletxean**.






- **ORGANIKOA:** bereizketa errazteko **10 litroko ontzia eta poltsa konpostagarriak banatuko dira**.

  **1- Atez ate: 20 litroko ontzi marroia** erabili eta atera ezazu kalera egutegiaren arabera.

  **2- Edukiontzia:** **egunero** atera daiteke. Edukiontzia txartel bidez irekitzen da. **Eska ezazu udaletxean**.

  **3- Konposta egitea:** informazio gehiago Sasieta Mankomunitatean.



20 L




- **NOLA LORTU POLTSA KONPOSTAGARRIAK:**

  **Udaletxeko sarreran poltsa konpostagarriak ematen dituen makina dago.** Sasieta Mankomunitateko **txartela** erabiliz **10 astean behin** poltsa sorta bat doan eskura daiteke.






# Hondakinik onena sortzen ez dena

- Beste zenbait hondakin **edukiontzi bidez** biltzen dira:




**Beira** | **Sukaldean erabilitako olioa** | **Arropa** | **Pilak** | **Kafe kapsulak**




- **MINIGARBIGUNEA hondakin txikientzat:** aparatu elektriko eta elektronikoak, informatika eta telekomunikazio gailuak, metala edo plastikoa ez diren ontziak, tinta eta toner kartutxoak, erradiografiak, bonbilak eta fluoreszenteak.

**Sartzen ez dena garbigunera eraman.**
**Ez utzi hondakinik lurrean!**



- **ETXEKO GAUZAK:** altzariak, koltxoiak, somierrak, etxetresna elektrikoak... **hileko 2. eta 4. astearte gauean** atera behar dira. Utzi **beira edukiontzien ondoan**.

- **OBRAKO HONDAKINAK,** paletak, txatarra, pneumatikoak, etab. **ez dira jasotzen, Ordiziako** edo **Beasaingo garbiguneetara** eraman behar dira.





## BEASAIN




## ORDIZIA




| | Astelehenetik ostiralera | Larunbatean (abuztuan izan ezik) |
|---|---|---|
| **Beasain** | 9:00-13:00<br>15:00-17:30 | 9:00-13:00 |
| **Ordizia** | 9:00-13:00<br>15:30-18:00 | 9:00-13:00 |







## INFORMAZIO GEHIAGO

Zalantzaren bat baduzu, ondorengo gidak kontsulta ditzakezu:

**"Hondakinak zuzen bereizteko gida"**
**"Horian, zer sar daiteke?"**

**SASIETA MANKOMUNIATEA: Tel.: 943 16 15 55**
**info@sasieta.eus • www.sasieta.eus**

**SEGURAKO UDALA: Tel.: 943 80 10 06 • udala@segura.eus • www.segura.eus**

SASIETA
MANKOMUNITATEA
www.sasieta.eus